

2024KO ABENDUAREN 5EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Bosta

HILABETEA: Abendua

URTEA: Bi mila eta hogeita lau.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak laurden gutxi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

BILDUA: Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Mariola Pascual Paredes (EAJ-PNV)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE).

EZ DA ETORRI: Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu)

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

1.- AURREKO AKTAK. 2024-10-31 aktaren onespena.

Aipatutako aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako zuzenketarik gabe.

2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENA:

a.- Obra ziurtagiria: BEASAIN - ORMAIZTEGI BIDEGORRIAN LED KALEARGIAK HORNITZEA ETA MUNTATZEA. 2. OBRA-ZIURTAGIRIA. 2024PROB0001

Bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute: “*Beasain - Ormaiztegi bidegorrian led kale-argiak hornitzea eta muntatzea*” buruzko” 2. obra-ziurtagiria, 31.103,03 €koa (BEZ barne).

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldeko zinegotziak aipatu dute bidegorri hori oinezkoen eta txirrindularientzat denez, kexak egon direla. Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde udal taldeko zinegotziak esan du batez ere, txirrindulariek kexatzen zirela.

EAJ-PNV udal taldeko zinegotziak esan du, gune partekatua dela.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera seiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.

